DEBAKO UDALA

# UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

## ACTA del PLENO MUNICIPAL

| | |
|---|---|
| BILERA ZK.: 2022/06 | SESIÓN Nº: 2022/06 |
| EGUNA: 2022/06/30 | DÍA: 30/06/2022 |
| HASIERA ORDUA: 19:00 | HORA DE INICIO: 19:00 |
| AMAIERA ORDUA: 20:00 | HORA DE FINALIZACIÓN: 20:00 |
| TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa | LUGAR: Salón de Plenos de la casa consistorial |
| **BERTARATUAK:** | ASISTENTES: |
| Gilen Garcia Boyra, **alkatea** | Gilen Garcia Boyra, alcalde |
| **EH Bildu udal taldea** | Grupo municipal EH Bildu |
| Itziar Irizar Beristain | Itziar Irizar Beristain |
| Aritz Larrañaga Unanue | Aritz Larrañaga Unanue |
| Antxon Etxeberria Larrea | Antxon Etxeberria Larrea |
| Nerea Arrizabalaga Badiola (2. aztergaitik aurrera) | Nerea Arrizabalaga Badiola (A partir del segundo punto del orden del día) |
| Antxoka Elorza Altuna | Antxoka Elorza Altuna |
| **Debarren Ahotsa udal taldea** | Grupo municipal Debarren Ahotsa |
| Pedro Bengoetxea Loiola | Pedro Bengoetxea Loiola |
| Isidor Lamariano Arostegi | Isidor Lamariano Arostegi |
| Enrique Salgado Alcorta | Enrique Salgado Alcorta |
| **EAJ-PNV udal taldea** | Grupo municipal EAJ-PNV |
| Eneritz Gómez Lázaro | Eneritz Gómez Lázaro |
| Miren Esnal Laskibar | Miren Esnal Laskibar |
| **Ezin etorria adierazi dute** | Excusan su asistencia |
| Ane Egidazu Elosua | Ane Egidazu Elosua |
| Iñigo Cambronero Alkorta | Iñigo Cambronero Alkorta |
| **Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra | Secretario: Jose Luis Salaberri Iñarra |

## ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.

**Gilen Garcia**: Arratsaldeon eta ongi etorri denoi.

Osoko Bilkura hasi baino lehen, bi kontu. Batetik, Iñigo Cambronero COVIDakin dago eta ezin izango du parte hartu Osoko Bilkuran, eta gaur goizean jakinarazi digute Ane Egidazuk ere ez dela egongo gaurko Osoko Bilkuran.

Eta, bigarrenez, Tokiko Gobernu Batzordean hitz egin dugunaren harira, proposatzen dugu urgentziaz sartzea, 11. gai gisa, Melillako gertakariei buruzko mozioa aztertzea.

Onartzen al dugu mozio hori urgentziaz sartzea?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Melillako hesiaren inguruan 2022ko ekainaren 24tik 25eko goizaldean gertatutako sarraskia salatzeko mozioa gaizerrendan sartzea.

## TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS.

**Gilen Garcia:** Buenas tardes, y bienvenidos y bienvenidas.

Antes de iniciar el Pleno, dos cuestiones. Por un lado, Iñigo Cambronero está con COVID y no podrá participar en el Pleno, y esta mañana Ane Egidazu nos ha comunicado que tampoco estará en el Pleno de hoy.

Y, en segundo lugar, al hilo de lo que hemos hablado en la Junta de Gobierno Local, proponemos la inclusión, como asunto de urgencia, como punto 11, analizar la moción sobre los acontecimientos en Melilla.

¿Aprobamos incluir dicha moción de forma urgente?

El Pleno, por unanimidad, aprueba incluir en el orden del día la moción de denuncia de la masacre ocurrida en la madrugada del 24 al 25 de junio de 2022 en torno al vallado de Melilla.

### 1.- AURREKO BILKUREI (2022/03/31, 2022/05/04 ETA 2022/05/26) DAGOZKIEN AKTA ZIRRIBORROAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

**Gilen Garcia**: Ba ahal dago ekarpenik?

Udalbatzak, aho batez, onartzen ditu 2022/03/31n, 2022/05/04an eta 2022/05/26an eginiko Osoko Bilkurei dagozkien aktak

### 1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DE LAS ACTAS DE LAS SESIONES ANTERIORES (31/03/2022, 04/05/2022 Y 26/05/2022).

**Gilen Garcia**: ¿Hay alguna aportación??

El Pleno por unanimidad aprueba las actas correspondientes a las sesiones del Pleno celebradas los días 31/03/2022, 04/05/2022 y 26/05/2022

### 2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA.

**Gilen Garcia**: Ba al dago ekarpenik edo iradokizunik?

**Pedro Bengoetxea**: Nik nuena, galdetu dut Tokiko Gobernu Batzordean. Ikusten dut Dekretu pila direla eta ez da erraza horiek kontrolatzea.

**Gilen Garcia**: Nik konfiantza osoa dut horiek prestatzen dituztenengan.

EAJren aldetik, ba al duzue galdera edo ekarpenik?

### 2.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna aportación o sugerencia?

**Pedro Bengoetxea**: Lo que yo tenía ya lo he expuesto en la Junta de Gobierno Local. Veo que son muchos Decretos y que es difícil su control.

**Gilen Garcia**: Yo confío plenamente en los que los preparan.

Por parte del PNV ¿tenéis alguna pregunta o aportación?

**Eneritz Gómez:** Ez

Udalbatzak jakinaren gainean geratzen da.

**3.- DEBAKO UDALEKO LANPOSTUEN ZERRENDAREN ALDAKETA (UDALTZAINBURUA) ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**Gilen Garcia**: Kasu honetan Idazkaritzako txosten bat dugu. Txosten hori aztertu da bai Barne Erregimenaren Batzordean, bai Negoziazio Mahaian sindikatu-ordezkaritzarekin batera. Laburbilduz eta argi gera dadin txostenaren azkenengo partea esango dizuet:

*«2018an onartutako udal plantillaren aldaketa ez dator bat gaur egun indarrean dagoen araudiarekin. Aipatutakoaren arabera, agente lehena plaza behin amortizatuta ezin baita eduki ofizial orde plaza. Azken horren azpiko beheko kategorietan hutsune bat dagoelako, eta horrek Polizia Legearen testu bateraginaren 57. artikuluaren 2. puntuan ezarritakoaren aurka dago. Horiek horrela, aintzat hartuta gaur egun Debako lanpostu zerrendan lau udaltzain postu besterik ez direla jasotzen, eta, hortaz, ez dagoela behartuta ofizial orde plaza izateko, proposatzen da lanpostuen zerrenda berriro aldatzea 2018an sortutako ofizial orde plaza amortizatuz eta agente lehenaren plaza berriro ere sortuz.»*

Txostenean oinarrituta, eta legeak ala baldintzatuta, aho batez onartu zen Barne Erregimeneko Batzordean, eta sindikatu guztiek ere begi onez ikusi zuten Negoziazio Mahaian.

Hortaz, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Udalaren lanpostuen zerrenda aldatzea, 2018an

**Eneritz Gómez:** Ez

El Pleno queda enterado.

3.-APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MODIFICACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO DEL AYUNTAMIENTO DE DEBA (JEFE DE POLICÍA LOCAL).

**Gilen Garcia**: En este caso tenemos un informe de Secretaría, que ha sido tratado tanto en la Comisión de Régimen Interior como en la Mesa de Negociación junto con la representación sindical. Resumiendo y para que quede claro os comento la última parte del informe:

*«La modificación de la plantilla municipal aprobada en 2018 no se ajusta a la normativa actualmente vigente. Según dicha normativa una vez amortizada la plaza de agente primero no puede existir la plaza de suboficial ya que generaría una laguna las categorías inferiores de esta última, lo que contraviene lo establecido en el punto 2 del artículo 57 del texto refundido de la Ley de Policía. Por ello, teniendo en cuenta que en la actualidad el Ayuntamiento no está obligado a contar con la plaza de suboficial ya que en la relación de puestos de trabajo de Deba sólo se contemplan cuatro plazas de agente de policía local, se propone modificar nuevamente la relación de puestos de trabajo amortizando la plaza de suboficial creada en 2018 y volviendo a crear la plaza de agente primero*.»

En base al informe, y condicionado por la ley, se aprobó por unanimidad en la Comisión de Régimen Interior, y todos los sindicatos mostraron su conformidad en la Mesa de Negociación.

Por lo tanto, procederemos a la votación. ¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, acuerda modificar la relación de puestos de trabajo del Ayuntamiento

sortutako ofizial orde plaza amortizatuz, eta agente lehenaren plaza berriro ere sortuz.

**4.- AMILLAGAKO BEPB-REN ALEGAZIOAK EBAZTEA ETA BEHIN-BETIKO ONESPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.**

**Gilen Garcia**: Gai hau Hirigintza Batzordean landu genuen; luzetik datorren espedientea da. Guztira zazpi alegazio aurkeztu ziren eta denak aztertu genituen Hirigintza Batzordean. Hauek dira aurkeztu diren alegazioak:

1. Rafael Perez Beristain, Plataforma de Defensa Medioambiental Mutriku Natur Taldearen izenean.

2. Oscar Padura Unanue, Eguzkizaleak elkarte ekologistaren izenean.

3. Jon Otegi Etxabe, Lojendio, SL enpresaren administratzaile bakarra.

4. José Luis Aramberri Ulacia, bere izenean eta bere emaztearen eta alaben ordezkari gisa.

5. Arkaitz Lazkano Odriozolak, Lazkai Zerbitzu Kudeaketa, SL enpresaren administratzaile mankomunatua.

6. Fernando Presencia, ACODAP "Asociación Contra la Corrupcion y Defensa de la Acción Pública" elkartearen izenean.

7. Arkaitz Lazkano Odriozolak, Lazkai Zerbitzu Kudeaketa, SL enpresaren administratzaile mankomunatua. (BEPBaren behin-behineko lehen onarpenari aurkeztutako alegazioak berresten ditu, 5. alegazioan jasotzen direnak)

BEPBren aldaketaren sustatzailearen txosten bat dago, baita udal arkitekto aholkulariaren txostena ere, eta alegazio guztiak Hirigintza Batzordean aztertu dira. Laburbilduz, alegazioak hiru multzotan sailka daitezke:

6. alegazioa 1. eta 2. alegazioen berdina da zati batean. Azken alegazio horiek testu bera dira, hainbat gai jorratzen dituzte, eta ezestea

amortizando la plaza de suboficial creada en el año 2018 y volviendo a crear la plaza de agente primero.

4.- RESOLVER LAS ALEGACIONES SOBRE EL PERI DE AMILLAGA Y SU APROBACIÓN DEFINITIVA, SI PROCEDE.

**Gilen Garcia**: Este tema se trató en la Comisión de Urbanismo; es un expediente que viene de lejos. En total se presentaron siete alegaciones, todas han sido analizadas en la Comisión de Urbanismo. Las alegaciones presentadas han sido las siguientes:

1. Rafael Perez Beristain, en representación de Plataforma de Defensa Medioambiental Mutriku Natur Taldea.

2. Oscar Padura Unanue, en respresetnación de la asociación ecologista Eguzkizaleak.

3. Jon Otegi Etxabe, administrador único de Lojendio, SL.

4. José Luis Aramberri Ulacia, en nombre propio y en representación de su esposa y de sus hijas.

5. Arkaitz Lazkano Odriozola, administrador mancomunado de Lazkai Zerbitzu Kudeaketa, SL.

6. Fernando Presencia, en representación de ACODAP "Asociación Contra la Corrupción y Defensa de la Acción Pública".

7. Arkaitz Lazkano Odriozola, administrador mancomunado de Lazkai Zerbitzu Kudeaketa, SL. (Ratifica las alegaciones presentadas a la primera aprobación provisional del PERI recogidas en la alegación nº 5)

Tenemos un informe de la promotora de la modificación del PERI, otro informe de la arquitecta asesora, y todas las alegaciones se han analizado en la Comisión de Urbanismo. Resumiendo, las alegaciones se pueden clasificar en tres grupos:

La alegación número 6 es parcialmente idéntica a las alegaciones números 1 y 2, las cuales son el mismo texto, tratan diversas cuestiones, y se

proposatzen da, sustatzailearen txostenean jasotzen den argudioan oinarrituta.

propone su desestimación en base a la argumentación que figura en el informe de la promotora.

3. eta 4. alegazioak oso antzekoak dira; gehien bat hitz egiten dute partzelari dagokion erabilera tertziarioari buruz. Hasiera batean eremuaren garapena bi fasetan aurreikusten zen, baina hori argituta geratu zen, garapen osoa fase berean egingo da eta ondoren repartzelazioan, kargak eta onurak ekitatez banatuko dira.

Las alegaciones número 3 y 4 son muy parecidas, principalmente se refieren al uso terciario de la parcela. Inicialmente se preveía el desarrollo del ámbito en dos fases, pero esto quedó aclarado y el desarrollo de todo el ámbito se realizará en una misma fase y, posteriormente, en la reparcelación se realizará la equidistribución de cargas y beneficios.

5. eta 7. alegazioek eduki berbera dute, eta kasu honetan ere horretaz aritzen ziren. Hasiera batean fase ezberdinetan egitea ikusten zen, eta fase ezberdinetan egiterakoan kargen eta onuren banaketak ezberdinak ziren.

La 5 y la 7 son la misma alegación y, en este caso, trataban sobre lo mismo que las anteriores. En un principio se preveía hacerlo en distintas fases y, al hacerlo en distintas fases, la distribución de cargas y beneficios eran diferentes.

Hortaz 3., 4., 5. eta 7. alegazioak onartzea proposatzen da. De fakto, hemen egiten duten eskaria horrela izango da. eta dena fase bakar batean garatuko da, eta repartzelazioan, kargak eta onurak ekitatez banatuko dira.

Por lo tanto, se propone aceptar las alegaciones números 3, 4, 5 y 7. De facto, lo que solicitan es como se va a desarrollar, en una única fase y en la reparcelación se realizará el reparto equitativo de cargas y beneficios.

Norbaitek zerbait gehitu nahiko balu oraintxe da unea eta bestela bozkatzea proposatzen dizuet.

Si alguien quiere añadir algo ahora es el momento y si no propongo proceder a la votación.

**Pedro Bengoetxea:** Guk Hirigintza Batzordean onartu genuen. Zuk emandako esplikazioa, arkitektoarena eta Grupo Eibareko abokatuarenarekin ados gaude. Lege barruan eginez gero, gu ados gaude

**Pedro Bengoetxea:** Nosotros lo aprobamos en la Comisión de Urbanismo. Estamos de acuerdo con tu explicación, con la del arquitecto y la del abogado del Grupo Eibar. Si lo hacemos legalmente nosotros estamos de acuerdo.

**Gilen Garcia**: Hortaz bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

**Gilen Garcia:** Vamos a votar. ¿Votos a favor?

Udalbatzak, aho batez, hau onartzen du:

El Pleno, por unanimidad, acuerda:

**Lehena.-** Ezestea 1., 2. eta 6. alegazioak sustatzailearen txostenean jasotzen den argudioan oinarrituta.

**Primero.-** Desestimar las alegaciones número 1, 2 y 6, en base en base a la argumentación que figura en el informe de la promotora.

**Bigarrena.-** Onartzea aurkeztu diren beste alegazioak.

**Segundo.-** Aceptar el resto de alegaciones presentadas.

**Hirugarrena.-** Behin betiko onartzea Amillagako Barne Erreformako Plan Berezia.

**5.- ZESTOAKO UDALA, ZUMAIAKO UDALA, DEBAKO UDALA ETA ITZIARKO AUZO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

**Gilen Garcia**: Tokiko gobernuan aipamena egin dugu, azaltzea Zestoako Udalak proposatu zuela bere garaian hitzarmen hau egitea; beraiek hartu zuten ardura hori. Azken finean hiru udalerriri eta baita ere Auzo Udalari dagokio bere eremuari osotasunean dagokion gaia bait da.

Gako nagusiak ziren herritarrei ze zerbitzu ematen zitzaien ingurune horietan, hau da gure udalerriek muga egiten duten inguru guzti horretan: Zestoa-Zumaiarekin, Zestoa-Debarekin, Zumaia-Debarekin eta Itziarko Auzo Udalarekin. Herritarren zerbitzuari dagokionean, gai sozio-ekonomikoetan, ingurumenean, kultura, ondarean eta abar.

Nabarmenduko nuke “lankidetza hitzarmena” dela, lankidetzatik abiatu dena. Proposamena zen urte luzetan gatazkatsuak izan diren hainbat gai, esanguratsuenak aipatuko nituzke hondakinen kudeaketak, bide konponketak, hainbat zerbitzu, osasun zerbitzuak, eskola eta abar.

Eskaera historikoak dira, gure kasuan, eta Itziarko hainbat baserritako biztanleei eragiten dietenak, ez baitaukagu muga horien inguruetatik nukleo handirik, Zestoak ez bezala. Horiei bide emateko bidea irekitzen du hitzarmen honek.

Nabarmenduko nuke baita ere, erakunde bakoitzeko gobernuaren esku geratzen dela konpromisoak hartzea. Hori indargune bat da erabakitzeko orduan, baina ahulgune bat izan lirateke desadostasunak baleude. Irakurtzean ikusten da borondate bat dagoela herritar horiei historikoko eman ez zaien zerbitzuak hobetzeko garaia dela. Eta modu sinbolikoan Jadarreko mugarria aukeratu genuen. Hiru

**Tercero.-** Aprobar definitivamente el Plan Especial de Reforma Interior de Amillaga

5.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE ZESTOA, EL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA, EL AYUNTAMIENTO DE DEBA E ITZIARKO AUZO UDALA.

**Gilen Garcia:** En la Junta de Gobierno Local hemos explicado que el Ayuntamiento de Zestoa propuso en su día la elaboración del presente convenio; se han encargado ellos. Al fin y al cabo corresponde a tres municipios y también a la Entidad Local Menor, ya que se trata de un tema que atañe en su totalidad a su zona.

Los puntos principales eran los servicios que se prestaba a la ciudadanía en estos entornos es decir, en toda la zona limítrofe con nuestros municipios: Zestoa-Zumaia, Zestoa-Deba, Zumaia-Deba y la Entidad Local Menor de Itziar. Los servicios en temas socio-económicos, medio ambiente, cultura, patrimonio, etc.

Destacaría que se trata de un acuerdo de colaboración que ha partido de la cooperación. La propuesta consistía en una serie de cuestiones conflictivas durante años, entre las que destacaría la gestión de residuos, reparación viaria, servicios diversos, servicios de salud, escuela, etc.

En nuestro caso se tratan de demandas históricas que afectan a la población de varios caseríos de Itziar, ya que no disponemos de grandes núcleos urbanos en torno a estos límites, a diferencia de Zestoa. El presente convenio abre la vía a su gestión.

También destacaría que la asunción de compromisos queda en manos del gobierno de cada institución. Esto es una fortaleza a la hora de decidir, pero sería un punto débil si hubiera discrepancias. Al leer se ve que hay una voluntad de mejorar los servicios que no se han prestado históricamente a estas personas. Y de forma simbólica elegimos el mojón de Jadar. Utilizamos este espacio limítrofe entre los tres

udalerriek muga egiten duten gune hori erabili genuen irudikatzeko zer den.

municipios para ilustrar de qué se trata.

Naiz eta albistetan "sinatuta" ipini, guri dagokionean, Osoko Bilkuratik pasatu arte sinatu gabe dago. Onartzen badugu, gaur edo bihar sinatuko nuke, eta Auzo Alkateari pasatuko diot bere sinadura ere sar dezan.

Aunque en la noticia dice "firmado" está sin firmar hasta que pase por el Pleno. Si lo aprobamos, lo firmaré hoy o mañana y se lo pasaré a la Alcaldesa pedanea para que incluya su firma.

Ba ahal dago ekarpenik edo iradokizunik?

¿Alguna pregunta o comentario?

**Pedro Bengoetxea:** Guk ezer baino gehiago, onerako izan dadila. Hitzarmen horien bidez, ardura norena den buruz sortzen diren zalantzak saihesten ditugu, batez ere zaborretan. Ona dela uste dugu. Herri mugakideekiko harremana ona da. Horrela, mugekin lotutako istilu historikoak saihesten dira. Interesgarria iruditzen zaigu.

**Pedro Bengoetxea:** Nosotros más que nada, que sea para bien. Con estos convenios evitamos una serie de dudas que se generan de quien es quien, sobre todo en las basuras. Pensamos que es bueno. La relación con los pueblos limítrofes es buena. Así se evitan jaleos históricos relacionados con las mugas. Nos parece interesante.

**Gilen Garcia:** Hortaz bozkatu egingo dugu

**Gilen Garcia:** Entonces vamos a votar

Aldeko bozkak?

¿Votos a favor?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Zestoako Udala, Zumaiako Udala, Debako Udala eta Itziarko Auzo Udalaren arteko lankidetza hitzarmena.

El pleno, por unanimidad, aprueba convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Zestoa, el Ayuntamiento de Zumaia, el Ayuntamiento de Deba y Itziarko Auzo Udala.

## 6.- ITZIARREN LEHEN HEZKUNTZA 6.MAILARA ARTE BERTAN EGITEKO ESKAERA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO.

## 6.- CONFIRMAR, SI PROCEDE, LA SOLICITUD DE CURSAR LA EDUCACIÓN PRIMARIA EN ITZIAR HASTA EL 6º CURSO.

**Gilen Garcia:** Eskaera hau bere garaian egin zen. Bi dokumentu erantsi ditugu aztergai honetan. Alde batetik Antxon Etxeberriak, hezkuntza zinegotziak eta neronek alkate gisa bezala hezkuntzara bideratutako gutunak. Bertan aipatzen da Hezkuntza Batzordearen onespena jaso zuela, eta eskari hori egiten genuela. Interesgarri ikusten dugu baita ere Itziarren Eskola Txikiaren sorreran eta ibilbidean indartzeko dela. Nabarmentzea prozeduraren aldetik Eusko Jaurlaritzak horrela egitea eskatu digula. Agian Auzo Udalaren izaera juridikoa dela eta berrespen

**Gilen García:** Esta petición se realizó en su día. Adjuntamos dos documentos en este punto. Por un lado las cartas enviadas a educación por parte de Antxon Etxeberria, concejal de educación y yo mismo como alcalde. En ella se menciona que recibió la aprobación de la Comisión de Educación y que hacíamos esta petición. También vemos interesante que la "Eskola Txikia" de Itziar se refuerce en su origen y trayectoria. Quiero destacar que en cuanto al procedimiento el Gobierno Vasco nos ha pedido que lo hagamos así. Quizás por la naturaleza jurídica de la Entidad Local Menor solicitaba esa

hori eskatzen zuen Debako Osoko Bilkuraren partetik.

Ekarpenik ba duzue?

**Pedro Bengoetxea**: Zergatik ipini duzu berrestea? Ez ahal da bozkatu behar?

**Gilen García:** Berretsi egingo dugu. Aditz hori erabili dugu "konfirmatzea", hain zuzen Hezkuntza Batzordean onartu genuelako, eta Hezkuntza Batzordean onartu eta gero, guk, hezkuntza zinegotziak eta alkateak, egiten genuena zen gutun hori bidali, Itziartik bideratu zen bezala. Pentsatu genuen alkatearekin, herriaren ordezkari gisa, nahikoa izango zela, baina, badirudi berrespen hori eskatzen dutela, adostasunean erabaki dela eta Osoko Bilkurak berrestea eskatzen zuten.

Hortaz, bai bozkatu egingo dugu. Azken finean, bozkatzen ari garena bidalita dago, onartu genuen gutun bat. Esango nuke "fede ekintza" baten antzekoa dela.

Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, berresten du 2022ko otsailean alkateak sinatuko eskaera, Itziarko eskola propioaren proiektua gauzatzen doan heinean lehen hezkuntza urtez urte eta pausuz pausu Itziarren izatea, alegia, aurten LH2 mailan dauden ikasleek bertan jarraitzea LH6 maila bitarteko ibilbidea Itziarren bertan egin dezaten.

ratificación por parte del Pleno de Deba.

¿Algo que añadir?

**Pedro Bengoetxea**: ¿Por qué indicas "confirmar"?" ¿No tenemos que votar?

**Gilen García:** Lo ratificaremos. Hemos utilizado este verbo "confirmar" ya que, de hecho, lo aprobamos en la Comisión de Educación, y una vez aprobado en la Comisión de Educación, lo que hacíamos nosotros, el concejal de educación y el alcalde, era enviar esa carta, tal y como se había tramitado desde Itziar. Pensamos que sería suficiente con el alcalde, como representante del pueblo, pero parece ser que pedían esa ratificación porque está tomada en consenso, y pedían que el Pleno la ratificara.

Así que votaremos. En definitiva, lo que estamos votando está ya enviado, la carta que aprobamos. Diría que es como un" acto de fe".

¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, ratifica la solicitud firmada por el alcalde en febrero de 2022, relativa a que a medida que se vaya ejecutando el proyecto de la escuela propia de Itziar, la educación primaria se vaya ampliando, año a año, paso a paso, y se desarrolle en Itziar, es decir, que este año el alumnado que está en 2º de primaria realice el itinerario hasta 6º de primaria en Itziar.

## 7.- NEXT GENERATION DIRULAGUNTZETARA AURKEZTUTAKO PROIEKTUEI BURUZKO HURRENGO PAUSOAK ARGITZEA.

**Gilen Garcia**: Gai hau batzorde mistoan aztertu zen, eta ondoren informazio saioak ospatu ziren asteburuan. Ezin egona sortu zen herrian eta alarma puntu bat sortu zen baita ere. Alderdi bakoitzak, ordezkaritza dutenak eta ez dutenak ere, beraien iritzia eman zuten bakoitza bere modura eta bere argudioekin. Iruditzen zaigu informazio hori eman dela eta hori nabarmentzen dugu. Oraintxe bertan hemengo proposamena da

## 7.- CLARIFICAR LOS PRÓXIMOS PASOS SOBRE LOS PROYECTOS PRESENTADO A LOS FONDOS NEXT GENERATION.

Gilen Garcia: Este tema se trató en la comisión mixta, y a continuación se celebraron sesiones informativas durante el fin de semana. Se generó malestar en el pueblo y se creó un punto de alarma. Cada partido, tanto los que tienen representación como los que no, dieron su opinión, cada uno a su manera y con sus argumentos. Creemos que ya se ha dado esa información y lo destacamos. La propuesta que tenemos aquí es un gran reto de trabajo que

lan erronka handia daukagula aurretik, ez bakarrik proiektu horrekin, baizik batzorde misto horretan lantzeko hartu genituen konpromisoekin. Hortaz azalduko dut aurre ikuspenak zeintzuk izango liratekeen

tenemos por delante, no sólo con ese proyecto, sino con los compromisos de trabajo que adquirimos en esa comisión mixta. Así que voy a explicar cuáles serían las previsiones.

Lehendabizikoak eta garrantzitsuenak batzorde misto horretan landu beharrekoak. Bertan eztabaida politiko-teknikoak emateko gunea, horrela aurreikusi baikenuen. Konpromiso nabarmenena planteamendu orokorraren aurre lanketa egitea dela, udalerri osoari dagokiona, eta baita ere beste eztabaida estrategikoak: etxebizitza, eta abar… Horretarako idazkaritza teknikoaren, Debegesaren, eta gure udal arkitekto aholkulariaren lana ere bageneukan

Las primeras y más importantes a tratar en dicha comisión mixta. Un espacio donde debatir temas político-técnicos, que es lo que habíamos previsto. El compromiso más destacado es el de realizar un trabajo previo a la planificación general, que corresponde a todo el municipio, así como otros debates estratégicos: vivienda, etc. Para ello contábamos con el trabajo de la secretaría técnica, Debegesa, y nuestro arquitecto asesor municipal.

Bigarrenik, Alamedako proiektua bera daukagu. Bertan ekainaren 3an eta 4an egindako informazio saiotan egin ziren ekarpenak jaso ziren. Egia da ostiraleko saioan, zailagoa izan zela ekarpenak behar bezala ematea, bereziki sortutako giroagatik, baino larunbatekoan, gela honetan egin zena, oso giro bestelakoa izan zen, arreta handiarekin eta errespetu osoz.

En segundo lugar, tenemos el propio proyecto de la Alameda. Aquí se recogieron las aportaciones realizadas en las sesiones informativas celebradas los días 3 y 4 de junio. Es cierto que en especial el viernes fue más difícil aportar de forma adecuada, especial-mente por el ambiente creado, pero el sábado se hizo en esta sala y el ambiente fue muy diferente con mucha atención y con el máximo respeto.

Ondorio nagusiena herritarren partetik izango litzateke 4. alternatiba aztertzea eta sakontzea. Herritarrengan kezka handia piztu du proiektu horrek bus geralekuaren inguruan aurreikusten. Hori jaso da, eta kontuan edukiko da.

La principal conclusión por parte de la ciudadanía sería profundizar en la 4ª alternativa y estudiarla, ya que la intervención que el proyecto plantea en torno a una parada de bus preocupa a la ciudadanía. Se ha recogido y se tendrá en cuenta.

Hirugarrenik, eta oso garrantzitsua baita ere, Eusko Trenbide sarea, Gipuzkoako Foru Aldundiko errepide saila, hein batean Gobernantza saila ere izan liteke, Portu Zuzendaritza… Horiekin guztiekin elkarrizketak abiatu beharko genituzke. Izan ere, aurreko puntuan, Alamedako proiektuari eta orokorrean 4. alternatiba horrek dakartzan aldaketak erakunde horietan

En tercer lugar, y también muy importante, Eusko Trenbide Sarea, el departamento de carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y también podría ser el departamento de Gobernanza, y la Dirección de Puertos. Deberíamos entablar conversaciones con todos ellos. El proyecto de la Alameda y, en general el cambio que supone esta 4ª alternativa supondría cambios en todas estas instituciones.

guztietan aldaketak suposatuko lituzke. Hau da Gipuzkoako Foru Aldundiko errepideak horrela adierazi digute behintzat, posible den heinean prest legokeela aldaketak egiteko.

Portu zuzendaritzak, ikusi egin beharko genuke, baina uste dut gehiago baldintzatuta dagoela trenbideak daukan pasoagatik, eta, nire ustez, Eusko Trenbide Sarearekin daukagu guk elkarrizketa sakonena. Gogoeta desberdinak atera dira, krutzea egin behar ote den, merkantzien garraiorako geraleku izan behar ote den…

Herritarren iritzia nahiko argia izan da prozesu osoan zehar, ez soilik informazio saio horietan, lehenago ere herriak beste esperantza batzuk ditu trenbidearekiko harreman horretan. Zaila izango baldin bada ere, uste dut elkarrizketa hoiek abiatu egin behar direla eta ikusi ze puntutararte akordiotara iritsi ahal geran.

Azkenik nabarmentzea pauso horiek guztiak, orain arte bezala, informazio saioen bitartez ere egingo direla. Informazio saiotan aipatu zen aldizkari bat egingo zela, bertan herritar guztiek jakin zezaten zer zen aurkeztu zena. Baita ere informazio saio horietan jasotako ekarpen guztiak laburbildu dira eta bertan jasoko dira herritarrak jakin dezaten zeintzuk izan diren gehien aipatutakoak.

Guri dagokigunez hauxe da une honetan egoeraren azterketa. Ba ahal dago galderarik?

**Pedro Bengoetxea:** Zuk azalpen bat eman duzu eta guk, talde gisa, beste bat eman nahi dugu.

Argi dago Nexteko proiektu baterako diru-laguntzaz ari garenean, Alamedaren proiektu horren zati jakin bati buruz ari garela. Jokoa ematen du, baina diru-laguntza eskatu da alde batentzat, eta nik uste dut nahasten jarraitzen dugula. Lehenik eta behin, uste dut argitu behar dugula zeintzuk diren batzorde bakoitzaren funtzioak, batzorde mistoa, parte-hartze batzordea eta hirigintzako batzordea, gai berberak lantzen ari baitira batzorde ezberdinetan, eta jarrera ezberdinak argi izan behar dira. Argi geratu

El departamento de carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa así nos lo han transmitido, que estarían dispuestos a realizar modificaciones en la medida de lo posible.

La Dirección de Puertos, habrá que verlo, pero creo que está más condicionada por el paso que tiene el ferrocarril., creo que es con Eusko Trenbide Sarea con quien tenemos que entablar una conversación más profunda. Han surgido distintas reflexiones sobre si hay que hacer el paso, sobre si debe ser parada para el transporte de mercancías…

La opinión de la ciudadanía ha sido bastante clara a lo largo de todo el proceso, no sólo en esas sesiones informativas, sino que ya antes el pueblo tiene otras esperanzas en relación con el ferrocarril. Aunque será difícil, creo que deben iniciarse esas conversaciones y ver hasta qué punto pueden llegar a acuerdos.

Por último, destacar que todos estos pasos se irán desarrollando, como hasta ahora, a través de sesiones informativas. En estas sesiones se mencionó que se iba a publicar una revista para que la ciudadanía pueda conocer lo que se ha presentado. Así mismo se resumirán las aportaciones recogidas en las sesiones para que conozcan cuales han sido las más mencionadas.

Por lo que a nosotros se refiere, este es el resumen de la situación. ¿Alguna pregunta?

**Pedro Bengoetxea**: Has hecho una aclaración y nosotros como grupo queremos hacer otra.

Está claro que cuando hablamos de la subvención para un proyecto de la Next, nos estamos refiriendo a una parte determinada de ese proyecto de la Alameda. Da juego, pero lo que se ha pedido es la subvención para una parte y yo creo que seguimos mezclando. Primeramente, creo que tenemos que aclarar cuales son las funciones de cada comisión, la comisión mixta, la comisión de participación y la comisión de urbanismo, pues se están tratando los mismos temas en distintas comisiones, y hay que tener claras las distintas posiciones. Se

DEBAKO UDALA

zen batzorde mistoan horrelako eztabaidak egingo zirela, hirigintzako batzordearen deribazio bat zelako, gai garrantzitsuak eramateko bikoizketa bat, eta hori zen horietako bat. Hiru puntu horiek argitu nahi genituen

Baita ere gure jarrera argitu nahi genuen. Debarren Ahotsatik gure jarrera argitu nahi dugu eta hau zergatik egin dugun. Argi daukagu zein den eztabaida eta non landu behar den. Baita ere argi daukagu zein den gure lana batzorde horietan guztietan, hau da, zintzoak izatea, gure proposamenak ematea eta une bakoitzean pentsatzen dugunari buruz gure iritzia ematea.

Inoiz ez gara ezeren kontra joan, joate hutsagatik. Gure arrazoiak eman ditugu. Liskar bat izatean, guretzat, eta zehazki niretzat, oso desatsegina izan zen jakinarazi ez zitzaidan zerbait bidali zela jakitea, ezta gure taldeari ere. Argi utzi genuen gure jarrera batzorde mistoan, eta gaia zergatik uzten genuen jakinarazi genuen. Kalera atera gara irteteko beste modurik ez dugulako. Nik ulertzen dut udal batzorde gisa buletina duzula eta badituzula baliabideak; guk kartela besterik ez dugu, eta gure betebeharra da jendeari gure iritzia ematea.

Ez dugu inoiz jendea alde batera uzteko asmorik izan, gure asmoa gure jarreraren berri ematea izan da. Badirudi zerbait egin dugula, eta guk ikusten dugu alderantziz izan dela, ez gaituztela kontuan hartu. Izan ere, batzorde mistoan irakurri nuen idatzian, gu zerbaitegatik ateratzen ez baginen, gai horretan konfiantza galduta genuelako izan zen, eta hau argi eta garbi esaten dugu gure idatzian. Beste idatziek diotena, bakoitzak atera duenaren ardura izan dezala; nik argi daukat idatzietan esan den guztia ez dela

quedó claro que la comisión mixta iba a llevar este tipo de debates porque era una derivación de la comisión de urbanismo, un desdoblamiento para llevar los temas importantes y este era uno de ellos. Queríamos aclarar estos tres puntos

También queríamos aclarar nuestra postura. Desde Debarren Ahotsa queremos aclarar nuestra postura y por qué hemos hecho esto. Tenemos claro cuál es el debate y dónde hay que trabajarlo. También tenemos claro nuestra labor en todas estas comisiones, y es ser sinceros, y dar nuestra opinión sobre lo que pensábamos en cada momento.

En ningún momento hemos ido en contra de nada “por ir”. Hemos dado nuestras razones. A la hora de tener un encontronazo, que para nosotros, y concretamente para mí, fue muy desagradable enterarme que se había mandado algo que no se me había comunicado, y a nuestro grupo tampoco, dejamos clara nuestra postura en la comisión mixta, y comunicábamos por qué abandonábamos el tema. Nuestra posterior salida a la calle es porque no tenemos otra manera de salir. Yo entiendo que como comisión de ayuntamiento tienes el boletín y tienes los medios; nosotros sólo tenemos el cartel, y es nuestra obligación también dar nuestra opinión a la gente.

En ningún momento hemos tenido la intención de echar a la gente a un lado, sino que ha sido informar de cuál es nuestra postura. Parece que hemos hecho algo, mientras que nosotros vemos que ha sido al revés, que no se nos ha tenido en cuenta. De hecho, en el escrito que leí en la comisión mixta, si nosotros no salíamos por algo era porque teníamos perdida la confianza en ese tema, lo que decimos claramente en nuestro escrito. Lo que dicen otros escritos, que cada uno sea responsable con lo que ha sacado; yo tengo claro que no

egia. Guk beti esan dugu lanean jarraituko dugula, eta hala egin dugu. Elkarrizketa beti eraman dugu, elkarrizketaren alde gaude. Herritarren parte-hartzearen alde ere bagaude, eta gardenak izan nahi dugu beti. Informazio guztia izan nahi dugu, eta hortik gure jarrera.

todo son verdades lo que se ha dicho en los escritos. Nosotros siempre hemos dicho que vamos a seguir trabajando, y así lo hemos dicho. El diálogo siempre lo hemos llevado, estamos a favor del diálogo. También estamos a favor de la participación ciudadana y queremos ser siempre transparentes. Queremos tener toda la información y de ahí nuestra postura.

Gu proiektuaren aurka gaude hainbat arrazoirengatik. Ez proiektuaren aurka, baizik eta ikusten dugu eztabaidarekin jarraitu behar dela, eta aldaketaren bat egon behar dela, ez gaudelako ados gauza batzuekin. Beti esan dugu, eta ez gaude ados formekin. Hori izan zen gure kalera irtetzea, jendea alde batera botatzeko inolako asmorik gabe. Ikusten bait genuen kalera ateratzeko epea gainera zetorrela, eta egin genuen gauza bakarra ohar bat ateratzea izan zen. Ohar hau parte hartzeko edozein gaian sar daitekeena, horrela gure parte-hartzea ematen dugulako. Guk lanean jarraituko dugu, uste dugulako gure jarrera debar askorena dela; gainera, uste dugu gure lana Debaren onerako dela. Ez gara sartuko nork eramango duen edo zer interes dauden atzean gauzak eramateko. Eraman beharreko ildoa elkarrizketa baldin bada, Debarren Ahotsa han izango da

Nosotros estamos en contra del proyecto por una serie de razones. No en contra del proyecto, sino que vemos que hay que seguir debatiendo, y que tiene que haber alguna modificación porque no estamos de acuerdo con algunas cosas. Siempre lo hemos dicho, y no estamos de acuerdo con las formas. Esa fue nuestra salida a la calle, sin ningún ánimo de echar a la gente a ningún lado. Veíamos que el plazo de tiempo que se iba a sacar a la calle se venía encima, y lo único que hicimos fue sacar una nota, la cual puede entrar en cualquier rollo de participación porque así damos nuestra participación. Nosotros vamos a seguir trabajando porque creemos que nuestra postura es la de muchos debarras; además creemos que nuestro trabajo es para el bien de Deba. No vamos a entrar en quien se lleve o qué intereses hay detrás para llevarse cosas. Siempre que el diálogo sea la línea a seguir, Debarren Ahotsa estará allí

**Gilen Garcia**: EAJak ba ahal dauka iritsirik?

**Gilen Garcia**: Desde el PNV, ¿tenéis algún comentario?

**Eneritz Gómez:** Ez. Nik uste dut puntua dela proiektuari buruz hurrengo pausoak argitzea eta argitu dituzu. Ez daukagu propaganda beharrik

**Eneritz Gómez:** No. Yo creo que el punto es aclarar los siguientes pasos sobre el proyecto y ya los has aclarado. No necesitamos propaganda.

**Gilen Garcia**: Matizatze aldera, teknikariek adierazi zuten komentatu zela batzorde mistoan, Debegesako teknikariak berak esan zuen hori noiz aurkeztu zen. Ulertzen dut gaizki ulertuarena eta benetan diot ez zela egon inolako asmo txarrik, izan ere, eta zorionez, hori bideoan grabatuta dago. Ni zur eta lur geratu nintzen joan zinetelako; hiru aldiz eskatu nizuen mesedez ez joateko, eta kezkatu egin nintzen ere EAJkoak bat egiten zutela, altxatu eta joaten zirela adieraztea. Bestaldez bi urte eta erdian egindako lan bati

**Gilen Garcia:** Para matizar, los técnicos indicaron que se había comentado en la comisión mixta, el propio técnico de Debegesa comentó la fecha en la que se presentó. Entiendo lo del malentendido y digo sinceramente que no hubo ninguna mala intención, de hecho y afortunadamente, eso está grabado en vídeo. Yo me quedé perplejo porque os fuisteis; os pedí tres veces por favor que no os fueseis, y también me preocupó que el PNV se uniese, se levantara y nos dijera que se iba. Por otra parte, dar esa respuesta a un

DEBAKO UDALA

erantzun hori emateak zur eta lur utzi ninduen.

trabajo realizado durante dos años y medio me dejó perplejo

Bestea da, guk bai kezkaz ikusi genuela horrela adieraztea. Ez dut esaten kartel bat ipintzea, azkenean herritarrekin komunikatzeko kaleak denenak dira, eta historikoki adierazi dituzte herriaren aldarrikapenak. Nire ustez hori ez da inongo arazoa. Kontua da bazirudiela hori gure proiektua zela. Nik ordezkatzen dudan alderdiarena eta gobernuarena ere. Ez dut proiektu hori nirea egin, baizik eta hori aurkeztu dela oinarrizko proiektu gisa dirulaguntzetara aurkezteko. Batzorde mistoan, Debegesako arkitektoak aipatu zuena hori bera izan zen.

Lo otro es que nosotros sí que vivimos con preocupación manifestarlo así. No digo poner un cartel, al final para comunicarse con los ciudadanos las calles son de todos, y han expresado históricamente las reivindicaciones del pueblo. Creo que eso no es ningún problema. El caso es que parecía que ese era nuestro proyecto, del partido y el gobierno que represento. Nunca he hecho mío ese proyecto, sino que se ha presentado como proyecto básico para presentarlo a unas subvenciones. Lo que mencionó el arquitecto de Debegesa En la comisión mixta fue eso mismo.

Irakurketak egon daitezke eta bakoitzak bere modura ulertu dezake hitz egin zena, eta nola hitz egin zen. Dena dela, asko eskertzen dut erabilitako tonua eta egindako baieztapenak, lasaiago gelditzen naiz. Ikusten dut bide luzea daukagula egiteko. Iruditzen zait “elkarhizketa” hitza nabarmendu behar dugula hemen, eragile desberdinak biltzen gera bertan. Urte pilotan, ez bakarrik Eusko Trenari lotuta, baizik hirigintza antolamenduari lotuta, etxe bizitzari lotuta antzeko azterketak egin izan ditugun heinean, iruditzen zait erronka horri heldu egin behar diogula, herriak hori merezi duelako, zalantzarik gabe.

Puede haber lecturas y cada uno puede entender a su manera lo que se habló y cómo se habló. De todas formas, agradezco mucho el tono utilizado y las afirmaciones realizadas, me quedo más tranquilo. Veo que nos queda mucho camino por recorrer. Me parece que aquí tenemos que resaltar la palabra "dialogo", donde nos reunimos diferentes agentes. Durante muchos años hemos realizado estudios similares relacionados no sólo con Eusko Tren, sino con la ordenación urbanística, con la vivienda. Me parece que tenemos que abordar ese reto, porque el pueblo se lo merece sin ninguna duda.

Ondo esan duzu ordezkatzen dituzula Debarra asko eta asko. Gehiengo bat etorri zen hona kezka horrekin. Azalpenak eman zitzaizkien. Pentsatzen dugu lasaiago joan zirela ikusi zutelako ez dela moztuko arbolarik herritarren gehienak ez baldin badu nahi arbolarik moztea. Jendea horrelako galderekin zetorren: “egia da hau edo bestea egingo dela?”

Has dicho bien que representas a muchos debarras. La mayoría vino aquí con esa preocupación. Se les dieron las explicaciones. Pensamos que se fueron más tranquilos porque vieron que no se cortará ningún árbol si la mayoría de la población no quiere que se tale. La gente venía con preguntas similares: “¿es cierto que se va a hacer esto o lo otro ?”

Hori da oinarrizko proiektu bat, lantzeko

Ese es un proyecto básico que está por elaborar,

dagoena, eta ez horrekin bukaera arte goazena. Ikusiko bagenu interbentzio horrek ez duela kabidarik eta ezingo genuela moldaketarik egin, ez gara joango itsu-itsuan kalte egingo digun diru-laguntza baten bila. Saiakera bat egin da eta orain guri tokatzen zaigu. Aipatu ditut zeintzuk diren lan ildo bereziak berriro ere horri heltzeko.

y con el no que vamos a ciegas hasta el final. Si viéramos que esa intervención no tiene cabida y que no es posible hacer adaptaciones, no vamos a ir a ciegas a buscar una subvención que nos perjudique. Se ha hecho un intento y ahora nos toca a nosotros. Ya he mencionado cuáles son las líneas de trabajo específicas para retomarlo

Informazio saio horietan jasotako ekarpenak euskaraz eta gazteleraz bilduta ditugu dagoeneko eta emango dizkizuet. Ekarpen horietatik abiatuta bakarrik, dagoeneko moldaketak eskatzen ditu proiektuak.

Tenemos recogidas las aportaciones recibidas en estas sesiones informativas, en euskera y en castellano y os las daré. Solo a partir de estas aportaciones, el proyecto ya precisa adaptaciones.

Zuk esandako hori jasota dago herritarrek emandako iritzietan. Hori eztabaida oso esanguratsua da, baino niri gehiago kezkatu zidan sortutako alarma. Jendea zetorren «zer egin behar duzue?» galderarekin. Eta nire erantzuna izan zen: «egingo da hemen esaten dena, hori jasotzera gatoz.» Han zegoen proiektu osoa, egin zen lanketa osoa.

Eso que tú has dicho está reflejado en las opiniones expresadas por la ciudadanía. Ese es un debate muy significativo, pero a mí me preocupó más la alarma creada. La gente venía con la pregunta «¿qué vais a hacer? Y mi respuesta fue: «Lo que se diga aquí es lo que se va a hacer; venimos a recogerlo». Allí estaba el proyecto completo, todo el trabajo realizado.

Ondoren egin zen lan bilera ingeniaritzarekin. Jendeari esango zaio egin den bidea, baino ondoren, orain arte bezala, erabakiak elkarrekin hartuko ditugu. Hemen hartu izan ditugu, eta foru desberdinak ere ireki ditugu. Nire ustez batzorde mistoaren foroa sekulako foroa da, oso interesgarria. Ikuspegi desberdinaz gain, ikuspegi tekniko desberdinak biltzen direlako bertan. Iruditzen zait bide horretan hazteko aukera handia daukagula.

Posteriormente se realizó la reunión con la ingeniería. A la gente se le informará el camino que se ha recorrido, pero después tomaremos las decisiones juntos, como hasta ahora. Las hemos tomado aquí y también hemos abierto distintos foros. Yo creo que el foro de la comisión mixta es un foro increíble, muy interesante. Además de diferentes puntos de vista, se recogen diferentes enfoques técnicos. Tengo la sensación de que tenemos muchas posibilidades de crecer en ese camino.

Eskertzen dut, kezka handiarekin gelditu nintzen mahaitik altxatzerakoan, zer suposatzen zuen horrek. Iruditzen zait lankidetza horretan jarraitu behar dugula. Ni pertsonalki, batzorde horretako buru bezala konpromisoa hartzen dut finago ibili beharko naizela horrelako gaizki ulertuak gerta ez daitezen. Horrelako gauza batek, ibilbide luze baten ondoren, naiz eta oinarriak sendoak izan, kezka horiek kolokan jarri dezakete horrelako prozesu bat, eta ez nuke nahiko; azkenean herriko espektatibarekin jokatuko bait genuke, eta inor ez gara horretara etorri.

Lo agradezco, me quedé con mucha preocupación al levantaros de la mesa. Me parece que tenemos que seguir colaborando. Yo personalmente, como presidente de esa comisión, me comprometo a andar más fino para que no se produzcan este tipo de malentendidos. Una cosa así, después de un largo recorrido, aun teniendo las bases sólidas esas preocupaciones pueden comprometer un proceso como este, y no me gustaría, porque al final jugaríamos con las expectativas de la gente, y nadie hemos venido a eso.

Pozten naiz entzundako eta ikusitakoarekin.

Me alegro después de lo visto y oído.

DEBAKO UDALA

**Pedro Bengoetxea:** Guk idatzian erabili ditugun hitz guztiak: «Zuhaitzak moztu» eta «190m», memorian daudenak dira. Ez dugu erabili bururatu zaigun hitzik ezer nahasteko. Ez dakit gaizki ulertu bat izan den, baina ulertuko duzu deiak egin nituela, zuri deitu nizun, arkitektoari deitu nion, eta ordubete baino gehiago hitz egin nuen berarekin… Eta pertsona horiekin hitz egin ondoren, bi batzorde egin eta inork ez diezadala ezer esan... nola joango naiz hurrengo batzordera ez dakidanean kontatzen ari zaizkidanak balio ote duen ala ez? Horren aurrean, nire jarrera azaldu nion taldeari, eta haiek ulertu zidaten.

**Pedro Bengoetxea:** Todas las palabras que hemos usado nosotros en el escrito: «tala de árboles» y «190m», son las que están en la memoria. No hemos usado ninguna palabra que se nos haya ocurrido para trastocar nada. No sé si ha sido un malentendido, pero entenderás que hice llamadas, te llamé a ti, le llamé a la arquitecta con la que estuve hablando más de una hora…. Y después de hablar con estas personas, hacer dos comisiones y que nadie me diga nada… cómo voy a ir a la siguiente comisión si no sé si lo que me están contando vale o no vale. Ante esto yo dije claramente mi postura ante el grupo, y el grupo me entendió.

Premia hori ikusi genuen: une jakin batean sentitu genuen engainatu egin gintuzuela, eta ez gintuztela kontuan hartu, eta horrela sentitu gara. Gure taldeak batzorde mistoa utzi zuen mesfidantzagatik. Uste genuen ez gintuztela tratatu guk uste bezala, edo gu portatu garen bezala. Eta zuen idazki eta adierazpenen artean diozue «politikan denak ez duela balio», niretzat ere ez, noski, «denak ez dit balio». Hori da jarreretako bat, eta, horrez gain, jarraitzen dugu pentsatzen proiektu horrek ez duela betetzen guk betetzea nahi duguna. Bi gauza zeuden: formak eta mamia. Besterik gabe, ez dut gehiago hitz egingo.

Vimos esa necesidad: en un momento determinado sentimos que nos habíais engañado, y que no se nos había tenido en cuenta, y así nos hemos sentido. Nuestro grupo dejó la comisión mixta por desconfianza. Pensamos que no se nos había tratado como nosotros pensamos que se debe o como nosotros nos hemos portado. Y dentro de vuestros escritos y declaraciones decís que «en política no todo vale», por supuesto para mí tampoco «todo no me vale». Esa es una de las posturas, aparte de que seguimos pensando que ese proyecto no cumple lo que nosotros queremos que cumpla. Había dos cosas: las formas y el fondo. Sin más, no voy a hablar más.

**Gilen Garcia**: Ados. Uste dut argi gelditu dela. Uste dut leku hau plazan eta kalean gertatzen denaren adierazle izan behar duela. Zenbat eta gehiago hori egin, hemen dauden eztabaidak osasuntsuagoak direla esan nahi du, hortaz ongi etorriak ekarpen horiek guztiak. Eta, zuek esanda bezala, ekarpen horiei buruz hitz egiten jarraituko dugu. Lanean jarraituko dugu eta seguru bidean topatuko garela.

**Gilen Garcia:** De acuerdo. Creo que ha quedado claro. Pienso que este lugar debe ser un indicador de lo que pasa en la plaza y en la calle. Quiero decir que cuanto más lo hagamos, más sanas serán nuestras discusiones, así que bienvenidas sean todas esas aportaciones y, como decís, seguiremos hablando de ellas. Seguiremos trabajando y seguro que nos encontraremos en el camino.

Ez baldin badago beste ekarpenik hurrengo aztergaira joko dut.

Si no hay más aportaciones me dirijo al siguiente asunto.

Udalbatza jakinaren gainean geratzen da.

El Pleno queda enterado.

**8.- EKAINAK 28-LGTBI+HARROTASUNAREN EGUNAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

8.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL EKAINAK 28-LGTBI+HARROTASUNAREN EGUNA.

**Gilen Garcia**: Itziar, zuraea da hitza.

**Itziar Irizar:** Ekainaren 28a pasa da, eta alderdien artean adostu genuen "Adierazpen Instituzionala". Argitaratu zen, baina Osoko Bilkurak onartzea tokatzen da. Irakurri egingo dut:

Adierazpen instituzionala irakurtzen du

Gilen Garcia: Itziar, tienes la palabra.

Itziar Irizar: El 28 de junio ya ha pasado, y entre los partidos acordamos la "Declaración institucional". La hicimos pública, pero falta su aprobación por el Pleno. Voy a leerla:

Procede a la lectura de la declaración institucional.

*«ADIERAZPEN INSTITUZIONALA*

*Ekainak 28 – LGTBI+ Harrotasunaren Eguna*

*BIZITZEK BALIO DUTE*

*Maiatzaren 17an, LGTBI+fobiaren aurkako Nazioarteko Egunean, esaten genuena errepikatuko dugu gaur, ekainaren 28an, LGTBI+ Harrotasunaren Egunean. Harro gaudelako gure bizitzez, harro gure bizi historiaz, harro LGTBI+ mugimenduaz.*

*Komunikabide nagusienen estigmatizazio saiakerek eta manipulazioek zein eskuin muturreko diskurtsoek cis-hetero arautik ateratzen diren bizitzak ezabatu nahi dituzten honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da nondik gatozen ospatzea eta aldarrikatzea.*

*Stonewalletik Euskal Herrira milaka bizipen, galera, aldarrikapen eta lorpen izan ditugu, baina, maiatzaren 17an esan genuen moduan, oraindik asko dago egiteko. Eraso LGTBI+fobikoen datuak gora doaz, armairuak presente jarraitzen du gure bizitzako arlo guztietan, diskurtso patologizatzaileak ugaritzen ari dira, … eta ondorioz gure bizitzak arriskuan daude.*

*Honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu.*

*Aurten, egun honen ikusgarritasuna indartzeko eta gazteenengana hurbiltzeko asmoz, goizean zehar, Kolore Anitz aisialdi taldearekin elkarlanean, tailer ezberdinak antolatu ditugu. Arratsaldean, berriz, Debako ipuin kontalariak izango dira Kutur Elkartean (18:00) eta elkarretaratzea Foruen Plazan (19:00).*

*Dei egiten diegu herritarrei ekimen hauetan parte har dezaten. Gure bizitzek balio dutelako!*

*Deban, 2022ko ekainaren 30ean.»*

**Gilen Garcia:** Ba al dago ekarpenik edo?

Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Ekainak 28-LGTBI+Harrotasunaren Egunaren adierazpen instituzionala.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna aportación?

¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, aprueba la declaración institucional Ekainak 28-LGTBI+Harrotasunaren Eguna.

**9.- ERREFUXIATUEI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA ONARTZEA, HALA**

9.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE LOS

DEBAKO UDALA

**BADAGOKIO.**

**Gilen Garcia**: Aritz, zurea da hitza.

**Aritz Larrañaga:** Adierazpen instituzionala irakurtzen du

REFUGIADOS.

**Gilen Garcia:** Aritz, tienes la palabra.

**Aritz Larrañaga:** Procede a la lectura de la declaración institucional.

*«ADIERAZPEN INSTITUZIONALA – Errefuxiatuak*

*Debako Udaleko talde politikook adierazpen hau egiten dugu:*

*Erbestea etengabeko konstantea izan da gizateriaren historian, baita gurean ere: gu ere erbeste izan ginen. Eta gaur babes izatea dagokigu. Irmoki sinesten dugu errefuxiatuen eskubideetan, eta harrera integrala eta duina emateko konpromisoa hartzen dugu.*

*Orain, erbestealdiaren eta aterpearen bideak irauli egin dira. Gure erbestearen memoriak laguntzen digu gaur egun gerratik, indarkeria politikotik, genero-jazarpenetik, ingurumenaren degradaziotik eta bizitzaren prekarizaziotik ihesi doazen pertsonekin enpatia sentitzen.*

*Azken urteotan, gora egin du Euskal Autonomia Erkidegora (aurrerantzean EAE) nazioarteko babes bila datozen pertsonen kopuruak, bai eta Europako beste herrialde batzuetara bidean gure lurraldetik igarotzen direnen kopuruak ere.*

*Pandemia gorabehera, 2020an eta 2021ean EAEk 4.809 asilo-eskatzaile jaso zituen (%42 emakumeak ziren eta %17 adingabeak). 2022an, nazioarteko babesa behar duten pertsonen fluxuak berraktibatzen ari dira: aurtengo urtarriletik apirilera bitartean, ia 1.287 eskaera erregistratu ziren, hau da, 2021 osoan aurkeztutakoen %75.*

*Kopuru horri gehitu behar zaizkio Ukrainako gerratik ihesi iritsi direnak eta, 2001/55 Zuzentaraua lehen aldiz aktibatzeari esker, aldi baterako babeserako mekanismo espezifiko bat eskura dutenak.*

*EAE, beraz, iheslarientzako igarotze eta iriste leku garrantzitsua bihurtu da. Bertan geratzen direnen kasuan, duten onarpen eta aintzatespen urriak baldintzatu egiten du haien gizarte-inklusioa ahalbidetuko duen eskubide eta zerbitzuetarako sarbidea, eta horrek pertsona asko zaurgarritasun handiko egoeretara bultzatzen ditu. 2020tik 2021era bitartean, Espainiako estatuan nazioarteko babesa aitortu zitzaien pertsonak %7 baino gutxiago izan ziren, eta EBn, berriz, %30 baino gehiago. Arrazoi humanitarioengatik bizilekua baimentzeko bidea Venezuelatik datozenenei ematen zaie ia modu esklusiboan. Bide honek dokumentazioa eta gizarteratzea errazten ditu, nahiz eta eskatzaileak ez diren errefuxiatutzat hartzen.*

*Ondorioz, nazioarteko babes-eskaera ukatzen zaien pertsonak (gehienak) zuzenean irregulartasun-egoerara igarotzen dira. Lana izatekotan, berehala galtzen dute. Harrera-sistemaren parte baziren, azkar ateratzen dituzte bertatik (15 egunetan), alternatiba juridiko eta sozialik gabe. Egoera horrek eragin handia du udaletako gizarte-zerbitzuetan eta migratzaileen kolektiboari eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonei lotutako beste gizarte-erakunde batzuetan.*

*Mugei, nazioarteko babesari edo atzerritartasunari dagozkien politikak Estatuaren eskumenekoak badira ere, berehalako premiak tokiko erakundeetan kudeatzen dira, hala nola benetako harrera ematea eta integrazioa eta elkarbizitza aniztasunean gauzatzeko aukera. Autonomia Erkidegoak gizarte-zerbitzuen arloko eskumena du, eta euskal aginte publikoak dira pertsonen eta horiek osatzen*

*dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna eraginkorrak eta benetakoak izan daitezen baldintzak sustatzeko eta oztopoak kentzeko neurriak hartu behar dituztenak.*

*Xede honetan, hiriek eta udalerriek funtsezko zeregina dute. Horregatik guztiagatik, Debako Udalak honako hau eskatzen dio* ***Espainiako Gobernua****ri:*

1. *Nazioarteko babesa aitortzeko estandarrak berma ditzala, Europako gainerako demokrazienekin bat etorriz.*
2. *Pertsona guztien asilo-eskubidea ziurta dezala, hauen jatorrizko herrialdea edozein dela ere. Ukrainako krisiak agerian utzi du, borondate politikoa dagoenean, nazioarteko babesa behar dutenak hartzeko mekanismoak egon badaudela.*
3. *Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzako harrera-sistemaren malgutasuna eta iraunkortasuna ziurta dezala, pertsonak ardatz dituzten gizarteratze-prozesu eraginkorrak bermatu ahal izateko. Gure herrialdeko gizarte- eta lan-eremuko aldaketetara egokituko den sistema bat, behar bereziak dituzten pertsonei arreta emateko bitarteko egokiak izango dituena, eta, aldi berean, pertsonen aniztasuna kontuan hartuko duena (besteak beste, generoari eta sexu-joerari dagokionez, erlijioari eta kulturari dagokionez, adinari dagokionez, …).*
4. *Tratu-berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko Lege Integrala onar dezala, eta Tratu-berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako organo independente bat sor dezala, diskriminazioaren biktimei arreta, laguntza eta erreparazioa emateko baliabide nahikoekin eta izaera eta eremu desberdinetako politika eta eragile diskriminatzaileak behatzeko eta haietan eragiteko ere.*
5. *Gizaki-salerosketaren Biktimak Babesteko eta Laguntzeko Lege Integrala onar dezala.*

*Halaber, Debako Udalak honako hau eskatzen dio* ***Eusko Jaurlaritza****ri:*

1. *Nazioarteko babesa eskatzen duten pertsonentzako harrera-sistemaren malgutasuna eta iraunkortasuna ziurta dezala, pertsonak ardatz dituzten gizarteratze-prozesu eraginkorrak bermatu ahal izateko. Gure herrialdeko gizarte- eta lan-eremuko aldaketetara egokituko den sistema bat, behar bereziak dituzten pertsonei arreta emateko bitarteko egokiak izango dituena, eta, aldi berean, pertsonen aniztasuna kontuan hartuko duena (besteak beste, generoari eta sexu-joerari dagokionez, erlijioari eta kulturari dagokionez, adinari dagokionez, …).*
2. *Enplegu-bilaketa aktiborako sarbidea erraztea, prestakuntza egoki, publiko eta doakoaren bidez, bai tokiko hizkuntzak ikasteko zein etorkizunean enplegua lortzeko aukerak hobetuko dituen prestakuntza jasotzen jarraitu ahal izateko.*
3. *Osasun mentaleko arreta-sarerako edo lan psikologikora zuzendutako taldeetan parte hartzeko sarbidea erraztea, bizi izandako egoera traumatikoetatik errekuperatzen laguntzeko.*

*Eta, era berean, Eusko Jaurlaritza zein Gipuzkoako Foru Aldundiarekin koordinatuta eta bere eremutik, Debako Udalak honako* ***konpromiso hauek*** *hartzen ditu:*

1. *Etxebizitza soziala eta gizarte-, hezkuntza-, osasun- eta kultura-arloko baliabideak eta diru-laguntzak eskuratzeko erraztasunak ematea, nazioarteko babes-premiak dituzten pertsonen eta aberrigabeen zailtasunak aintzat hartzen dituzten irizpideak ezarriz, egoera bereziki ahulean dauden pertsonak kontuan hartuta, hala nola genero-arrazoiengatik jazarpena jasan duten edo indarkeria matxista jasaten ari diren emakumeena.*

DEBAKO UDALA

2. *Gizarte-prestazioak eskuratzeko irizpideak ezartzea horien lorpena erraztera begira, eta ez prestazioak etetera bideratuta; esate baterako, jatorrizko herrialdean lortu ezin diren agiriak edo Espainiako estatuan ez dauden senideak salbuestea, izapideak arintzea eta komunikazioa hobetzea.*
3. *Diskurtso diskriminatzaile eta xenofoboei aurre egitea, prebentzio- eta monitorizazio-neurriak hartuz, eta integrazio-, bizikidetza-, berdintasun- eta diskriminaziorik gabeko planak eraginkortasunez diseinatu eta inplementatzen direla bermatzea administrazioaren maila guztietan, ikuspegi komunitariotik eta beharrezko aurrekontu-esleipenarekin.*
4. *Tokiko biztanleei zuzendutako sentsibilizazio-ekintzak gauzatzea, errefuxiatuekin eta migratzaileekin batera gizarteratzean eta elkarbizitzan eragiteko, hala nola zurrumurruen aurkako estrategien bitartez.*
5. *Diskurtso arrazista eta xenofoboen aurkako jarrera irmoa izatea, diskurtso politikoek immigrazioa instrumentalizatzen ez dutela eta gorrotoaren bidez gizarte-haustura sustatzen ez dutela zainduz.*
6. *Zerbitzu publikoetan diskriminazioaren eta tratu-desberdintasunaren biktimei arreta ematea.*
7. *Memoria historikoaren balioa azpimarratzea, duela ez hainbeste, gu ere erbeste izan ginelako. Orain babesa izatea dagokigu.*

*Deban, 2022ko ekainaren 30ean.»*

**Gilen Garcia:** Ba al dago ekarpenik edo?

Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du errefuxiatuei buruzko adierazpen instituzionala.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna aportación?

¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, aprueba la declaración institucional sobre los refugiados.

**10.- OSAKIDETZAREN INDARTZEAREN ALDARRIKAPENARI BURUZKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.**

10.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MOCIÓN SOBRE LA REIVINDICACIÓN DEL FORTALECIMIENTO DE OSAKIDETZA.

**Gilen Garcia**: Itziar, zurea da hitza.

**Itziar Irizar:** Mozioa irakurtzen du.

Gilen Garcia: Itziar, tienes la palabra.

Itziar Irizar: Procede a la lectura de la moción.

*«EH Bilduren Udal Taldeak Osakidetzaren indartzea aldarrikatzeko honako mozioa aurkezten du*

*Azken urteotan Eusko Jaurlaritzak hartutako erabakien ondorioz, Osakidetza kinka larrian dagoela salatu nahi dugu. Egoera ez da berria, eta ez, ez da pandemiaren ondorio; osasun publikoaren desegitea ez baitzen pandemiarekin hasi. Murrizketak eta planifikazio eza, eta osasun sistema publikoa pribatuaren mesedetan ahultzeko estrategia aspaldiko kontuak dira. Bereziki 2018tik gaurdaino, osasun sistema publikoan eman diren atzerapausoak gero eta nabarmenagoak izan dira. Eta guzti honen ondorioak herritarrek jasaten dituzte, are gehiago herri txikietan.*

*Denok dakigu zein garrantzitsua den kalitatezko lehen mailako arreta izatea, baina, sistema hori indartu beharrean, Jaurlaritza kontrakoa egiten ari da; eta hori, oinarrizko eskubide baten aurkako erasoa da, pertsona guztiok dugulako kalitatezko arreta sanitario publikoa jasotzeko eskubidea.*

*Hori guztia kontuan izanda, EH Bilduko Udal Talde honek hiru eskakizun argi egin nahi dizkio Eusko Jaurlaritzari osasun sistema publikoa bizirik mantendu dezan:*

*1. Urte osoan zehar, uda sasoian barne, herri honetako osasun sistema publikoak eskaintzen dituen zerbitzuak bermatu ditzala.*

*2. Lehentasunez, mediku egoiliarren kontratazio-eredua aldatu dezala, kontratu egonkorrak eta lehen arretan euren garapen profesionalerako ibilbidea ahalbidetuko dutenak bermatuz.*

*3. Lehen Arretarako eskaintzen duten mediku, erizain eta gainerako osasun profesional kopurua handitu dezala. Diziplina anitzeko lantaldeak sortuz, non beste profil profesional batzuk txertatuko diren, hala nola geriatrak eta fisioterapeutak, eta Itziarko kasuan baita pediatra eta emagina ere.*

*Deban, 2022ko ekainaren 30ean.»*

**Gilen Garcia:** Ba al dago ekarpenik?

Aldeko bozkak? Bederatzi.

Aurkako bozkak? Bi

Udalbatzak, aldeko bederatzi botoekin eta aurkako bi botoekin, onartzen du Osakidetzaren indartzearen aldarrikapenari buruzko mozioa.

**Gilen Garcia:** ¿Hay alguna aportación?

¿Votos a favor? Nueve.

¿Votos en contra? Dos.

El Pleno, con nueve votos a favor y dos votos en contra, aprueba la moción sobre la reivindicación del fortalecimiento de Osakidetza.

**11.- Gai zerrendatik kanpoko aztergaia: MELILLAKO HESIAREN INGURUAN 2022KO EKAINAREN 24TIK 25EKO GOIZALDEAN GERTATUTAKO SARRASKIA SALATZEKO MOZIOA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO**

11. Asunto fuera del orden del día: APROBACIÓN, SI PROCEDE, DE LA MOCIÓN DE DENUNCIA DE LA MASACRE OCURRIDA EN LA MADRUGADA DEL 24 AL 25 DE JUNIO DE 2022 EN TORNO AL VALLADO DE MELILLA.

**Gilen Garcia**: Aritz, zurea da hitza.

**Aritz Larrañaga:** Mozioa irakurtzen du

Gilen Garcia: Aritz, tienes la palabra.

Aritz Larrañaga: Procede a la lectura de la moción.

*«MELILLAKO HESIAREN INGURUAN 2022KO EKAINAREN 24TIK 25EKO GOIZALDEAN GERTATUTAKO SARRASKIA SALATZEKO MOZIOA*

*Ekainaren 24tik 25erako goizaldean Melillako hesiaren inguruan sarraski bat gertatu zen. Behin behineko balantzearen arabera, 37 pertsona hil dira eta askoz gehiago larriki zaurituak izan dira.*

*Gertaera larri hauek Espainiako gobernuaren migrazio politiken porrotaren adierazpen tragikoa dira. Andaluziako Giza Eskubideen Aldeko Elkartearen (APDHA) "2021eko Hegoaldeko Mugako Fluxu-Migratorioaren Balantzea"k berriki emandako datuen arabera, gutxienez 2.126 pertsona hil dira Espainiako Estaturako migrazio-ibilbidean, aurreko urtean baino %24 gehiago. Hala ere, desagertutako pertsonen kopurua askoz ere handiagoa dela adierazi du erakundeak.*

*Horrekin batera, ezin dugu alde batera utzi Melillako gertaeren ondoren Espainiako Gobernuko presidenteak adierazitako immigrazioaren aurkako diskurtsoa erradikalizatu egin dela. Bere adierazpenetan, mugaren bi aldeetako polizia-jarduera hilgarriak justifikatzeaz gain, poliziaren*

*lana ezinbestekotzat jotzen da migratzaileek erabiltzen duten indarkeriaren aurrean Estatuaren segurtasunerako, haien jarduera "ondo ebatzitako operaziotzat" jotzen baita.*

*PSOEk hamarkadak daramatza giza eskubideen aurkako migrazio-politika errepresiboak aplikatzen: atzerritarrei buruzko Legea, CIESak, hegoaldeko mugaren militarizazioa armada bidalita, "lotsaren" zuzentaraua, "beroan" egindako kanporaketak, mugen kudeaketa kanpora ateratzeko Marokorekin sinatutako akordioak, hirugarren herrialdeetako migratzaileak Marokon berriz hartzeko akordioak, Ceuta eta Melillako hesiak, kontzertinak, migratzaileen heriotzak poliziaren eskuetara, adingabeen legez kanpoko kanporaketak...*

*Horri lotuta, Maroko Espainiaren eta EBren lehentasunezko bazkidea da migrazio-fluxuen kontrolari dagokionez; eta lankidetza horrek itsas patruilatze bateratua eta migratzaileen detekzioa eta intertzeptazioa gauzatzea suposatzen du.*

*Migrazioa kontrolatzeko praktikak Marokoko lurralde osoan aplikatzen dira, eta batez ere Saharaz hegoaldeko Afrikako hainbat herrialdetatik datozen pertsonak atxilotzen dira, herrialdearen barrualdera modu behartuan lekualdatzeko edota jatorrizko herrialdeetara deportatzeko. Jarduera hori gauzatzeko, atxilotze-zentro ez-ofizialak erabiltzen dira, hala nola bunkerrak, eraikin abandonatuak, polizia-etxeetako zorupeak edo eskolak, non azkenean lekualdatuak edo deportatuak izango diren pertsonak atxikitzen diren; izan ere, migratzaileen eskubideen aldeko kolektiboek salatu dutenez, pertsona horiek ez daude prestatuta askatasunaz gabetzeko, eta, beraz, haien baldintzak osasungaitzak eta gaitzesgarriak dira, eta, gainera, tortura fisikoa eta psikologikoa egiten da horietan.*

*Azkenik, adierazi behar dugu heriotza horien erantzukizuna mugak ixteko migrazio-politika krudel eta anker batzuei dagokiela. Politika horiek ez dira eraginkorrak immigrazioa kontrolatzeko helbururako, eta, gainera, sufrimendu handia sortzen dute eta giza eskubideak etengabe urratzen dituzte. Politika horien bidez, Espainiako Estatuak bere lurralde-osotasuna lehenesten du, migratzaileek askatasunez igarotzeko eta harrera duina eta integrala jasotzeko duten eskubidearen aurrean. Argudio hori erabiltzen du, halaber, Irun eta Hendaia arteko mugan korridore humanitarioak irekitzea ukatzeko, Bidasoa ibaiko tragediak saihestu, eta, horrela, mugak pertsonen aurretik jartzeko.*

*Guzti hori dela eta, Debako Udalak ERABAKI DU:*

*1.- Ekainaren 24tik 25erako goizaldean Melillako hesiaren inguruan gertatutako sarraskian poliziak izandako basakeria salatzea (behin-behineko balantzean, 37 dira hildakoak eta askoz ere gehiago larri zaurituak); eta elkartasuna adieraztea hildako eta zauritutako pertsonei, haien lagunei eta hurbilekoei.*

*2.- Gertakari larri hauetan Estatuko segurtasun indarren parte-hartzea salatzea.*

*3.- Mugak militarizatzearen eta kudeaketa kanpora ateratzearen inguruan egun aplikatzen diren migrazio-politikak salatzea.*

*4.- Pertsona migrante guztien duintasuna eta giza eskubideen errespetua bermatuko dituen legezko bide seguruak irekitzea exijitzea.*

*5.- Ikerketa independiente bat egiteko eskaera luzatzea, gertakariak argitu eta dagozkion neurriak*

*ezartzeko.*

*6.- Hildako pertsonen gorpuzkiak berreskuratu, identifikatu eta jatorrizko herrialdeetara aberriratzea exijitzea, familien nahiak errespetatuz.*

*Deban, 2022ko ekainaren 30ean.»*

**Gilen Garcia:** Ba al dago ekarpenik edo iritzirik?

Hortaz, bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak?

Udalbatzak, aho batez, onartzen du Melillako hesiaren inguruan 2022ko ekainaren 24tik 25eko goizaldean gertatutako sarraskia salatzeko mozioa.

Gilen Garcia: ¿Hay alguna aportación u opinión?

Así, procedemos a la votación ¿Votos a favor?

El Pleno, por unanimidad, aprueba la moción de denuncia de la masacre ocurrida en la madrugada del 24 al 25 de junio de 2022 en torno al vallado de Melilla.

**12.- ESKARI ETA GALDERAK.**

**Gilen Garcia:** Eta honenbestez, Osoko Bilkurako azken puntura heldu gara, eskari eta galderak. Ba al dago eskari edo galderarik?

**Pedro Bengoetxea:** Antxokarentzat da. Zergatik ez da irekitzen Luzaroko patioa? Badakit ez dela planetan sartzen, baina hainbeste jendek galdetzen digu, jakitearren dela.

Bigarrenik, hotelaren egoera zein den jakin nahi genuke. Zurrumurru asko daude eta hobe da jakitea zer dagoen.

Hirugarrena ia erregu bat da. Astelehenean buletinean agertzen bada, tasatutako etxeak zuzendu ondoren, Osioko eta etxebizitza buruzko eztabaida irekitzea beharrezkoa dela ikusten dugu. Eztabaida hori irekitzeko eskatuko genizueke.

**Antxoka Elorza:** Luzaroko patioaren inguruan, Luzarori eskatu zaio bertako patioaren erabilera eta esan digute Kolore Anitzekoekin daukatela adostuta astean zehar ibiltzea. Aukera izango zen aste bukaeratan irekitzea. Ikusten dugu alde batetik patioa berritu dela aterpe berriarekin eta horrek eskatuko luke aterpeari segurtasun neurriak ematea ez egoteko inongo kalterik. Horrekin batera Mogel Kalean amaieran, etxe berriak bukatu dituzten inguruan aparkaleku berri asko ireki dira. Alternatiba bezala uztailean behintzat ikustea nola doan egoera. Horregatik Mendatako patioak ireki dira udatiarrei eta

12.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Gilen Garcia: Hemos llegado al último punto del orden del día, ruegos y preguntas. ¿Hay algún ruego o pregunta?

Pedro Bengoetxea: Es para Antxoka. ¿Por qué no se abre el patio de Luzaro? Ya sé que no entra en lo previsto, pero nos está preguntando tanta gente que es por saber.

En segundo lugar, quisiéramos saber cuál es la situación del hotel. Hay mucho rumor por ahí y es mejor saber lo que hay

La tercera es casi un ruego. Si el lunes sale en el boletín, una vez que ya hemos enderezado las casas tasadas, vemos la necesidad que se abra el debate de Osio y la vivienda. Os haríamos la petición de abrir ese debate.

Antxoka Elorza: Respecto al patio de Luzaro, se le ha solicitado a Luzaro el uso del patio pero nos han dicho que tienen acordado su uso con Kolore Anitz durante la semana. La opción sería abrirlo los fines de semana. Por una parte, vemos que se ha renovado el patio con la nueva cubierta, y eso exigiría dotar a la cubierta de medidas de seguridad para que no haya ningún daño. Junto con eso, al final de la calle Mogel, en la zona donde se han terminado las nuevas casas, se han creado nuevos aparcamientos. Vamos a ver, por lo menos en julio cómo va la situación Por ello, los patios de Mendata se han abierto para

bertakoei begira. Uztailaren zehar ez irekitzearen arrazoia hau da batez ere.

**Gilen Garcia:** Bigarren galdera, hotelari dagokiona nik ere entzun ditut gauzak. Iruditzen zait gauza horiei ez diogula kasurik egin behar. Ez dakit zein den zurrumurru berria, baino herri bat zurrumurruz bizi baldin bada gaizki gabiltza. Nik dakitena da erosle batek erosi zuela eta erregistratu zuela. Hemen aipatu genuen. Proiektu bat sartu du, eta proiektu hori aztertu behar da. Proiektu hori batzordera iritsiko da, aztertuko dugu eta legezkoa baldin bada eta baldintzak betetzen baditu, arkitektoaren aholkuei jarraituz emango zaio baimena. Gure lana izango da hori ahalik eta azkarren egitea, jabeen asmoa udarako edukitzea delako. Niri behintzat iritsi zaizkit gauza batzuk tristura, barrea, denetik sortzen didatenak. Baino azkeneko albistea zein den ez dakit; hor galduta nabil

**Pedro Bengoetxea:** Horregatik galdetu dut; zurrumurruei kasurik ez egiteko, galdetu eta badakigu zer dagoen

**Gilen Garcia:** Horrelaxe gaude.

Hirugarrena, Osio eta etxebizitzen eztabaida irekitzearena, lehen 7. aztergaian aipatutakoaren haritik, helburua izango litzateke etxebizitzen gaiari heltzea. Orain asmoa da batzordeko idazkari lanak egiten ari den Itziar Gonzalezekin adostea plangintza bat etxebizitzaren gaia noiz eta nola landu beharko genuke; etxe bizitza turistikoak eta aipatu ditugun hainbat gai gure herrian eragina daukatenak bertan txertatzea. Asmoa da bertan jartzea, jartzen dugun egutegi eta lan dinamikaren araberan.

Helduko diogu, baino nahi dut modu ordenatu baten egitea, gero egutegi hori ahal den einean bete ahal izateko

veraneantes y residentes. La razón de no abrir a lo largo de julio es sobre todo esta.

**Gilen Garcia:** La segunda pregunta, la del hotel, yo también he oído cosas. Me parece que a esas cosas no tenemos que hacerle caso. No sé cuál es el nuevo rumor, pero si un pueblo vive de los rumores mal andamos. Lo que yo sé es que lo compró un comprador y lo registró. Lo comentamos aquí. Ha presentado un proyecto y hay que estudiarlo. Este proyecto llegará a la comisión, lo estudiaremos y si es legal y cumple los requisitos, siguiendo los consejos del arquitecto se le autorizará. Será nuestro trabajo hacerlo lo más rápido posible, porque la intención de los propietarios es tenerla para el verano. Al menos a mí me han llegado algunas cosas que me generan tristeza, risa, de todo. Pero no sé cuál es la última noticia, ahí estoy perdido.

**Pedro Bengoetxea:** Por eso he preguntado, para no hacer caso a los comentarios, pregunto y sabemos lo que hay

**Gilen Garcia:** Así estamos.

Tercero, abrir el debate sobre Osio y la vivienda, en la línea de lo señalado en el punto 7 anterior, el objetivo es abordar el tema de las viviendas. La idea es consensuar con Itziar González, que está ejerciendo de secretaria de la comisión, una planificación sobre cuándo y cómo deberíamos abordar el tema de la vida doméstica; integrar en ella las vidas turísticas domésticas y las que afectan a nuestro país a diversos temas de los que hemos hablado. La idea es ponerlo allí, según el calendario y la dinámica de trabajo que pongamos.

Vamos a abordarlo, pero quiero que lo hagamos de una manera ordenada para que luego ese calendario se pueda cumplir al máximo.

**Gilen Garcia:** Hortaz, ez badago besterik amaitutzat emango dugu Osoko Bilkura.

**Gilen Garcia:** Por tanto, si no hay más asuntos, daremos por finalizado el Pleno.

Horrenbestez, beste aztergairik ez dagoenez, 20:00an amaitzen da Osoko Bilkura.

Sin más temas que tratar, a las 20:00 horas, finaliza el Pleno.

Jose Luis Salberri Iñarra

Idazkaria

Gilen Garcia Boyra

Alkatea